

1979-I-26

Baionan, Euskal Erakustokian, 1979.eko Urtarrilaren 26an, goizeko lletan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; Odon Apraiz, euskaltzain ohorezkoa; J.L. Alvarez "Txillar-degi", P. Andiazabal, F. Artola, I. Berriatua, R. Canblong, P. Charritton, J.B. Dirassarre, M. Goienetxe, J.L. Lizundia, E. Salaberri, eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

A. Zumalabe eta A. Irigaray jaunak, Eusko Ikaskuntzaren izenean etorriak dira.

EUSKALTZAINEN BATZARRA

Lehendabizi, euskaltzain osoen batzarra egiten da, bertan Abenduko batzar agiria onartukeran, euskaltzainburuak ohar bat egiten du, argituz, Arrasateko Biltzarrerako oharrak bidaltzeko epea Otsaileko batzarrean amaituko dela, ez Urtarrilakoan agiriak dioen bezala.

X. Kintana eta A. Irigoyen jaunek egina zuten eskaria aipatu da. "País Vasco" erdal esaera adierazteko, alegia, Euskal Herria esaera jatorra ezin dela baztertu, nahiz Euskadi ere berdin erabili. Ontzat ematen da agerpen hau. Eusko Kontseilu Nagusiari eta prentsari bidaltzea erabaki da.

J.M. Satrustegi, lekukoen bildumaz eman zitzaion eginkizunez mintzatu da. Liburuen neurria aipatu du, batez ere, eta inprimagintzan ikasie galdetu ondoan, *Liburu Zuriaren* neurria dela oso neurri egokia, jakinara zi digute. Neurri horretan egingo da, beraz.

Otsailaren bian egingo da, Donostian, Arrasateko Biltzarra antolatzeko joateko izendatuak diren batzorde bien bilkura. Gipuzkoako Diputazioan, goizeko lletan. Egun berean, arrasaldean, Aresti zenaren olerki bilduma aurkeztuko du Aurrezki Kutxak.

BATZAR IREKIA

Ondoren, Erakustokiko aretoan egin da Georges Lacombe zenaren ehun-urteburua ospatzeko gertatua zen batzar irekia.

L. Villasante jaunak egin du ongi etorria.

P. Lafitte, Lacomberen lekuko euskaltzainak, prestatu du haren bizi-ko xehetasunen ikuspegia, aipatu ditu bere lanak eta pentsabidea.

P. Charritton, hanhemenka banatuak diren eskutiz eta idazkiez mintzatu daizo bait gauza aipagarr%adieraziz.

Odon Apraiz jaunak, bere biziko gordailu aberatsetik eman ditu, frantsesez, Lacombe zenarekin izandako harremanen berriak.

Eta azkenik, Baionako ordezkartzaren buru eta idazkariak, J. Hari-tselhar eta P. Charritton jaunek, arratsaldeko bilkura eta prentsa aurre-koa iragartzen dituzte. Erakustokian bertan izango da, eta hiru puntu eabiliko dira:

a) Parisera egina duten, Euskaltzaindia Iparraldean ere ofizialki onartzeko eskaria. Zonbait hilabeteren buruan erantzunik izan ez duen idazkia.

b) Baionako ordezkartza irekia dela jakinarazi, eta Charritton dela idazkari. Port Neuf, karrikako 15ean izango da Euskaltzaindiaren bule-go.

d) Bai Euskarari kanpainaren antzeko zerbait egitea Iparraldean ere. Bilkura honetara euskaltzaindikoetatik aparte, Iparraldeko zenbait talde euskaltzale eta kazetariak deituak dira.

Euskaltzainburua

Luis Villasante

Idazkaria

Jose Maria Satrustegi